

Delt@ sistemari buruz maiz egiten diren galderak

900 49 44 53

AURKIBIDEA

Delt@ sistemari buruz maiz egiten diren galderak.....	2
Zer da Delt@ sistema?	2
Ba al duzu zalantzarik partea betetzeko orduan?	2
Delt@ izapidetzen ez bada ezar daitezkeen zehapenak	3
Delt@ izapidetu behar dut istripua nire enpresan gertatu ez bada ere (enplegu- aniztasuna)?	3
Berriz gaixotuz gero, Delt@ partea bete behar da?.....	3
Gaixotasun profesionalen kasuan, Delt@ partea bete behar da?	3
Gaixotasun arrunten kasuan, Delt@ partea bete behar da?	3

Delt@ sistemari buruz maiz egiten diren galderak

Zer da Delt@ sistema?

Delta sistema **laneko istripuen** aitorpen elektronikoa da. Lanaren eta Ekonomia Sozialaren Ministerioaren aplikazio informatiko horren bidez, enpresak edo aholkularitzak laneko istripuaren (**bajarekin edo bajarik gabe**) berri eman behar die mutualitateari eta Gizarte Segurantzari.

Espainiako Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden langileek atzerrian izandako laneko istripuak ere jakinarazi behar dira, baldin eta laneko istripuen kontingentzia estalita badute.

Laneko istripuen jakinarazpena bide elektronikoz egin behar da, azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Aginduan xedatutakoaren arabera, laneko istripuak elektronikoki aitortzeko sistemaren bidez (Delt@).

Mutualiak Delta partea betetzeko aukera eskaintzen du estranetaren bidez. Zirriborro bat emango dizugu, bete dezazun.

Ba al duzu zalantzarik partea betetzeko orduan?

- **Delt@** orrian bazaude, **delta@mites.gob.es** posta elektronikoaren edo **900 49 44 53** telefonoaren bidez jarri beharko zara harremanetan.
- Parte betetzeko orduan zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan **Mutualiako Prestazio Ekonomikoen Sailarekin (900 50 60 70)**.

Amaitutakoan, sortutako fitxategia deskargatu eta Deltaren orrira inportatu beharko duzu. Egiaztatu partea behar bezala bidali dela, dagokion bidalketa-zenbakiarekin.

Informazio gehiago: <https://delta.mites.gob.es/Delta2Web/info/pdfs/Guia-cumplimentacion-PAT-Delta.pdf>

Partea helarazteko epeak

- **Baja eragin duten** laneko istripuak **istripua gertatu eta 5 egun balioduneko epean** jakinarazi behar dira.
- **Baja eragin ez duten** laneko istripuak **istripua gertatu eta hurrengo hilabeteko lehen 5 egun baliodunetan** jakinarazi behar dira.
- **Egun bereko baja eta alta** kasuak **bajarik gabeko istripu gisa** izapidetu behar dira.

Delt@ izapidetzen ez bada ezar daitezkeen zehapenak

- **Baja eragin duen laneko istripua** garaiz eta behar bezala jakinarazten ez bada, **1.502,53 €-tik 30.050,61 €-ra bitarteko zehapenak** ezar daitezke.
- **Baja eragin ez duen laneko istripua** garaiz eta behar bezala jakinarazten ez bada, **60 €-tik 625 €-ra bitarteko zehapenak** ezar daitezke.

Delt@ izapidetu behar dut istripua nire enpresan gertatu ez bada ere (enpleguaniztuna)?

Enpresa bakoitzak laneko istripuaren parte izapidetu beharko du, bai istripua gertatu den enpresak, bai istripua gertatu ez den beste enpresak ere. Azken enpresa horrek berariaz adierazi beharko du partean langilearen enpleguaniztasuneko egoera, eta enpresa horretan laneko istripurik gertatu ez dela.

Berriz gaixotuz gero, Delt@ parte bete behar da?

Laneko istripu baten ondorioz berriz gaixotuz gero, beste Delt@ parte bat izapidetu behar da. Istripuaren data hasierako prozesuaren data izango da.

Gaixotasun profesionalen kasuan, Delt@ parte bete behar da?

Gaixotasun profesionala ez da Delt@ sistemaren bidez jakinarazi behar.

Enpresak dagozkion izapideak egiteko jarraibideak jasoko ditu.

Gaixotasun arrunten kasuan, Delt@ parte bete behar da?

Gaixotasun arrunta ez da Delt@ sistemaren bidez jakinarazi behar; jakinarazpena **RED sistemaren** bidez bideratu behar da.